«La diferencia entre lo que hacemos y lo que somos capaces de hacer bastaría para solucionar los problemas del Mundo»
M. Gandhi

«Egiten duguna eta egin dezakegunaren arteko aldea nahikoa izango litzateke Munduko arazoak konpontzeko»
M. Gandhi

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABA Ekologiaren
ÁLAVA Un modelo de Vida

unesco etxea
centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

Cambio climático y cooperación al desarrollo

Compromisos y oportunidades a través de la solidaridad

Devastadores efectos del Huracán Nargis en Myanmar (2008) Nargis urakanaren ondorio hondatzaileak Myanmarren (2008)

Klima-aldaketa eta garapenerako lankidetza

Konpromisoak eta aukerak elkartasunaren bidetik

Cambio climático y cooperación al desarrollo

Compromisos y oportunidades a través de la solidaridad

En un Mundo ecológicamente interconectado, las responsabilidades para hacer frente al cambio climático son comunes, pero diferenciadas. Los países desarrollados, responsables de la mayoría de las emisiones, debemos dejar de dañar y comenzar a ayudar a los más pobres, los que ya están sufriendo y sufrirán más todavía con el cambio climático.

Con los recursos disponibles, no actuar no es una opción posible. Más allá del cumplimiento de los acuerdos internacionales, cada uno de nosotros debe reducir su impacto y ayudar a los que no tienen nuestras mismas oportunidades.

Klima-aldaketa eta garapenerako lankidetza

Konpromisoak eta aukerak elkartasunaren bidetik

Mundu hau lotuta dago ekologiaren ikuspegitik eta, horrenbestez, klima-aldaketari aurre egiteko erantzukizunak komunak dira, baina, orobat, badira aldeak. Herrialde garatuok dugu isurketa gehienen ardura eta, beraz, kalteak eragiteari utzi eta pobreenei lagundu behar diegu, klima-aldaketarekin jada sufritzen ari direnei eta geroan are gehiago sufrituko dutenei.

Eskueran dauden baliabideekin, lanari ez ekitea ez dago aukeren artean. Nazioarteko hitzarmenak betetzetik areago, gutako bakoitzak murriztu egin behar du bere eragina eta gure aukera berak ez dituztenei lagundu behar die.

Índice

1. El cambio climático genera pobreza

2. Cambio climático y Objetivos de Desarrollo del Milenio

3. ¿Qué se está haciendo?

4. El papel de la cooperación al desarrollo

5. ¿Qué puedes hacer tú?

El cambio climático genera pobreza

El mundo es heterogéneo, la gente tiene ingresos y recursos desiguales y el cambio climático YA está afectando a algunas de las comunidades más pobres y vulnerables de mundo.

«Los impactos del cambio climático afectarán desproporcionadamente a los países en desarrollo y las gentes pobres de todos los países, acrecentando consecuentemente las desigualdades en salud y acceso a comida adecuada, agua limpia y otros recursos»

R.K.Pachauri. Presidente IPCC

Los países del Norte, con un 20% de la población, son responsables del 60% de las emisiones de GEI (gases de efecto invernadero) y, por lo tanto, en gran parte causantes del problema. Mientras tanto, los países del Sur, que ni contribuyen ni contribuyeron en el pasado significativamente a la emisión de GEI, serán los que sufran las peores consecuencias, aumentando aún más las desigualdades entre el Norte y el Sur.

Cambio climático

Patrones climáticos cambiantes y aparición de fenómenos atmosféricos extremos

Cambios en los ciclos de cosechas, ciclo del agua. Escasez de recursos (agua, comida, cobijo)

Incremento o aparición de enfermedades

Conflictos
Migraciones

Degradación de ecosistemas

Aumento de la vulnerabilidad

Obstáculos al desarrollo

Pobreza

La lucha contra la pobreza y contra el cambio climático es una lucha conjunta

Cambio climático y Objetivos de Desarrollo del Milenio

2. En Nicaragua, la proporción de niños que debieron trabajar en lugar de ir a la escuela aumentó de 7,5% a 15,6% en los hogares afectados por el huracán Mitch.

1. Los escenarios climáticos indican que el área propensa a la sequía en África está aumentando, con la consiguiente pérdida de áreas de cultivo y medios de sustento.

8. Los países desarrollados prestamos poca atención a la necesidades de adaptación de los países menos desarrollados, que no tienen capacidad de defenderse ante los efectos del cambio climático. Así, los fondos destinados a la adaptación de los países pobres a los efectos del cambio climático equivalen a una semana del presupuesto del programa de protección contra inundaciones del Reino Unido.

7. En la región andina el abastecimiento de agua del 80% de la población peruana depende de los glaciares, que se reducen año tras año. A nivel global se ha determinado que para 2050 el cambio climático será el principal motivo de la pérdida de biodiversidad, por delante de la deforestación y los usos del suelo.

Los 8 Objetivos de Desarrollo del Milenio (ODM) representan los compromisos mínimos que debemos alcanzar para erradicar la pobreza en todas sus dimensiones. Los efectos del cambio climático suponen una grave amenaza para la consecución de los ODM, en especial aquellos relacionados con la erradicación de la pobreza y el hambre, y el derecho a un medio ambiente sano.

3. Cada año se emplean en África 40 millones de horas de trabajo para transportar agua, que en general es tarea de mujeres. También son ellas las que conforman casi el 80% del sector agrícola en África.

4/5/6. Para el año 2080, la cifra de personas afectadas por desnutrición podría aumentar en 600 millones más. Otros 1.800 millones más podrían vivir en zonas con escasez de agua. Y otros 400 millones más podrían verse expuestos a la malaria. Informe sobre Desarrollo Humano 2007-2008.

La producción agrícola y la seguridad alimentaria, el acceso al agua y a una fuente segura de ingresos se verán directamente amenazados.

1 ERRADICAR LA POBREZA EXTREMA Y EL HAMBRE

Ante una mayor dedicación a lograr los medios de sustento, la educación siempre pasa a un plano secundario. También los desastres naturales y la emigración forzada reducen las oportunidades de educación.

2 LOGRAR LA ENSEÑANZA PRIMARIA UNIVERSAL

La cada vez mayor escasez de recursos hará crecer la presión sobre las mujeres, que suelen ser las que dedican más tiempo para la subsistencia familiar.

3 PROMOVER LA IGUALDAD ENTRE LOS GÉNEROS Y LA AUTONOMÍA DE LA MUJER

OBJETIVOS RELACIONADOS CON LA SALUD HUMANA

Aumentarán las enfermedades dependientes de factores climáticos (malaria, dengue...), y las relacionadas con las condiciones de agua insalubre provocadas por sequías o inundaciones.

Además, las mujeres embarazadas y los niños y niñas son particularmente sensibles a las enfermedades, así como a la malnutrición, que pueden venir provocadas por la inseguridad alimentaria y la escasez de agua potable.

4 REDUCIR LA MORTALIDAD INFANTIL

5 MEJORAR LA SALUD MATERNA

6 COMBATIR EL VIH/SIDA, EL PALUDISMO Y OTRAS ENFERMEDADES

Una mayor presión humana sobre los recursos naturales, así como las variaciones impredecibles en los patrones climatológicos, provocarán alteraciones en los ecosistemas. Ésto provocará una disminución de la biodiversidad y un aumento de la degradación ambiental, en ocasiones, de forma irreversible.

7 GARANTIZAR LA SOSTENIBILIDAD DEL MEDIO AMBIENTE

El cambio climático es un fenómeno que requiere por definición una cooperación global. Bajo la idea de **corresponsabilidad,** es la hora de asumir la lucha contra la pobreza y contra el cambio climático como una lucha conjunta.

8 FOMENTAR UNA ASOCIACIÓN MUNDIAL PARA EL DESARROLLO

1987

Grupo Intergubernamental sobre el Cambio Climático (IPCC) // Grupo de expertos que examina las investigaciones científicas y ofrece a los gobiernos resúmenes y asesoramiento sobre los problemas climáticos.

1994

Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático // tratado internacional sobre el calentamiento atmosférico y medidas a adoptar para hacer frente al cambio climático. Cerca de 200 Estados adheridos.

¿Qué se está haciendo?

Dos son las estrategias en las que se trabaja paralelamente:

ADAPTACIÓN a lo inevitable: preparándonos y capacitando para hacer frente a los efectos del cambio climático.

MITIGACIÓN reduciendo y evitando las emisiones de gases contaminantes.

En mitigación si bien lo primero es el deber de **reducir las emisiones** en origen, una opción adicional es contribuir con reducciones de gases en otras partes del mundo, a través de los mercados de carbono que ya están en marcha.

Foto: Proyecto de energía eólica en la India a través del cual es posible compensar emisiones voluntariamente.

1997

Protocolo de Kyoto // Propone medidas jurídicamente vinculantes. Meta principal: reducir las emisiones de GEI al menos un 5% con respecto a los niveles de 1990 antes de 2012. Este esfuerzo recae en los países industrializados, incluidos en el denominado Anexo 1.

2005

Kyoto entra en vigor // Rusia se adhiere y se llega al 55% de emisiones de países desarrollados, que implica su entrada en vigor. Se ponen en marcha una serie de mecanismos, como el comercio de derechos de emisión. Hay países como EEUU, uno de los principales emisores, que no lo ha ratificado aún.

El papel de la cooperación al desarrollo

Se debe actuar con urgencia para ayudar a los países más pobres en su adaptación a los efectos del cambio climático. Sólo así, y fomentado su desarrollo a través de tecnologías limpias, se conseguirá reducir la vulnerabilidad en el mundo en desarrollo.

Además, la cooperación debe tener en cuenta el cambio climático, ya que gran parte de los sectores sobre los que actúa –agricultura, salud, acceso al agua...– se encuentran afectados por sus consecuencias. Ya existen indicios de que el cambio climático está afectando a los logros alcanzados.

El Banco Mundial estima que un 40% de la Ayuda Oficial al Desarrollo destinada a la lucha contra la pobreza está en peligro por el cambio climático.

Amenazas a la cooperación	Oportunidades para la cooperación
El 60% de los movimientos migratorios actuales están causados por el cambio climático y los desastres de origen natural, como sequías e inundaciones.	Es necesario incorporar las variaciones climáticas en las estrategias, planes y programas de cooperación, teniendo en cuenta los escenarios futuros.
La creciente disminución de precipitaciones y los fenómenos climáticos extremos pueden afectar directamente a la soberanía alimentaria y a las bases de sustento de muchas comunidades.	La cooperación debe incorporar conceptos de sostenibilidad ambiental y servir para la trasferencia de tecnologías limpias y creación de capacidades.
Nuevos vectores de difícil previsión como la propagación de enfermedades o los desastres naturales, pueden provocar la interrupción o anulación de intervenciones de cooperación.	Los logros obtenidos en las intervenciones deben de garantizarse mediante la aplicación de actuaciones de adaptación a los efectos del cambio climático.
Cambios en las condiciones ambientales o cambios de hábitat y pérdida de biodiversidad, pueden afectar a la sostenibilidad económica de las intervenciones de cooperación.	Se pueden evaluar alternativas de financiación en el marco de las oportunidades que ofrecen los mercados voluntarios.

El mercado voluntario de compensación de emisiones está en pleno crecimiento, gracias al interés de las ONGD de participar en él y de la ciudadanía que desea neutralizar sus emisiones.

¿Qué puedes hacer tú?

Como CIUDADANO/A:

- reducir mi huella ecológica a través del consumo responsable, ahorrando energía, usando el transporte público…
- informarme sobre la situación global y sobre los espacios en los que puedo incidir, y participar en ellos.
- reivindicar la integración de la variable ambiental en todas las políticas públicas.

Como EMPRESA:

- introducir procesos de producción limpia y exigirlo a mis proveedores.
- mejorar el aprovechamiento de la energía.
- favorecer la reutilización y reciclado de los productos.

Como AGENTE DE COOPERACIÓN:

- adaptar mis estrategias y actuaciones a los futuros escenarios climáticos para mejorar la eficacia de mis intervenciones.
- hacer de la lucha contra el cambio climático una oportunidad.

Y **TODOS** podemos, de manera voluntaria, compensar las emisiones que no hayamos podido evitar, a través del mercado voluntario.

Los proyectos que podemos encontrar en este mercado voluntario (reforestación, energías limpias, residuos o protección de ecosistemas), se caracterizan por ser proyectos pequeños, pero de una alta rentabilidad ambiental y social, suponiendo una mejora en la comunidad y una alternativa o extra de financiación para la entidad cooperante.

Secuestro de carbono en comunidades de pobreza extrema en México

Gracias al aporte de personas que voluntariamente compensan sus emisiones se están reforestando 400 ha de tierras agrícolas y ganaderas en Sierra Gorda (México), combatiendo la pobreza e impulsando el desarrollo sostenible a través de la creación de plantaciones de pequeña escala manejadas por los propietarios.

Argibidea

1. Klima-aldaketak pobrezia sortzen du

2. Klima-aldaketa eta Milurtekoko Garapen Helburuak

3. Zer ari da egiten?

4. Garapenerako lankidetzaren eginkizuna

5. Zer egin dezakezu zuk?

Klima-aldaketak pobrezia sortzen du

Mundua heterogeneoa da, jendearen diru-sarrera eta baliabideetan alde handiak daude batetik bestera eta klima-aldaketa munduko komunitate pobre eta ahulenei eragiten ari da JADA.

«Klima-aldaketaren inpaktuek alde handiz eragingo diete garapen bidean diren herrialdeei eta herrialde guztietako jende pobreei eta, horren ondorioz, hainbat alorretan aldeak handitu egingo dira: osasunean eta elikadura egokia, ur garbia eta bestelako baliabideak eskuratzeko aukeran, esaterako»

R.K.Pachauri. IPCC-ko Presidentea

Iparraldeko herriek biztanleriaren %20 dute, baina berotegi-efektuko gasen %60 isurtzen dute eta, beraz, hein handi batean arazoa sortu dutenak. Aldiz, Hegoaldeko herrialdeek, ez dute ardura nabarmenik izan GEI isurketetan, ez orain eta ez lehen, eta berek pairatuko dituzte ondoriorik okerrenak. Ondorioz, gainera, Ipar eta Hegoaren arteko aldeak areagotu egingo dira.

Klima-aldaketa

Klima eredu aldakorrak, muturreko fenomeno atmosferikoen agerpena

Aldaketak uzten zikloan eta uraren zikloan. Baliabide eskasia (ura, jatekoa, babesa)

Beste gaixotasun batzuk hedatzea eta agertzea (malaria, esate baterako)

Gatazkak
Migrazioak

Ekosistemak hondatzea

Pobreziaren eta klima-aldaketaren aurka denok elkarrekin borrokatu behar dugu

Pobrezia

Garapenerako oztopoak

Ahultasuna areagotzea

Klima-aldaketa eta Milurtekoko Garapen Helburuak

2. Nikaraguan, eskolara joan ordez lan egin behar izan zuten haurren ehunekoa %7,5etik %15,6ra igo zen Mitch urakanak kaltetutako etxeetan.

1. Agertoki klimatikoek adierazten dute Afrikan lehortea jasateko joera duen ingurua zabaltzen ari dela; horren ondorioz, laborantzarako eremuak eta bizirauteko bitartekoak galtzen ari dira.

8. Herrialde garatuok kasu gutxi egiten diegu gutxiago garatutako herrialdeek egokitzeko dituzten beharrei; izan ere, herrialde horiek ez dute klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko gaitasunik. Horren adierazle gordin, herrialde pobreak klima-aldaketaren ondorioetara molda daitezen bideratzen diren funtsak Erresuma Batuan uholdeen kontra babesteko programaren astebeteko aurrekontuaren parekoak dira.

7. Andeetako eremuan, Peruko biztanleriaren %80k glaziarretatik jasotzen du edateko ura, eta glaziarrak murrizten ari dira urtez urte.Mundu mailan egiaztatu da 2050. urterako bioaniztasun galeraren erantzule nagusia klima aldaketa izango dela, deforestazio eta lur erabilen aurretik.

Zortzi dira Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH); maila guztietan pobreziarekin errotik bukatzeko gutxieneko zer konpromiso lortu beharko genukeen adierazten da helburu horietan. Klima-aldaketaren ondorioak mehatxu larria dira MGH horiek lortzeko bidean, batez ere pobrezia eta gosea errotik bukatzea eta ingurumen osasuntsua izatea xede duten helburuak lortzeko.

3. Urtero 40 milioi lan-ordu erabiltzen dira Afrikan ura garraiatzeko eta, oro har, emakumeen lana izaten da hori. Halaber, Afrikan nekazaritza sektorean lanean diharduten guztien %80 emakumeak dira.

4/5/6. 2080. urterako, 600 milioi lagun gehiagok jasan dezakete desnutrizioaren eragina. Beste 1.800 milioi gehiago ur eskasia dagoen eremuetan bizi daitezke. Eta beste 400 milioi malariaz gaixotzeko arriskuan egon daitezke. 2007-2008 Giza Garapenari buruzko Txostena.

Nekazaritza-produkzioa eta elikadura-segurtasuna, ura eskura izatea eta diru-sarrera ziurra izateko iturria zuzenean mehatxatuta geratuko dira.

Bizirauteko sostengua lortzeko eginahalean ibiltzeak beti dakar hezkuntza bigarren mailara pasatzea. Hondamendi naturalek eta behartutako emigrazioek ere murriztu egiten dute hezkuntza jasotzeko aukera.

Gero eta baliabide gutxiago izateak emakumeen gaineko presioa areagotzea eragingo du; izan ere, emakumeak jarduten dira denbora gehien familia aurrera ateratzeko lanean.

GIZA OSASUNAREKIN LOTURIKO HELBURUAK

Klimari loturiko faktoreen mende dauden gaixotasunak (malaria, dengea...) areagotu egingo dira, baita lehorte edo uholdeak direla medio osasunerako kaltegarria den ur-baldintzei loturikoak ere.

Gainera, haurdun dauden emakumeek eta haurrek arrisku handiagoa dute gaixotzeko, baita malnutrizioa jasateko ere; hain zuzen, elikatzeko segurtasun ezagatik eta ur edangarri gutxi izateagatik etor daitezke gaitz horiek.

Baliabide naturalen gainean giza presio handiagoak eta klimatologia-patroien ezusteko aldaketek alterazioak sortuko dituzte ekosistemetan. Horrek, berriz, biodibertsitatea murriztea eragingo du eta ingurumena areago hondatzea; batzuetan, modu atzeraezinean, gainera.

Klima-aldaketaren fenomenoak, berez, lankidetza globala eskatzen du. Elkarrekiko ardura ideia oinarri harturik, garaia da pobreziaren eta klima-aldaketaren aurkako borroka elkarrekin egin beharrekoa dela jabetzeko.



1987

Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea (IPCC) // Zientzia-ikerketak aztertu eta klima-arazoen gainean gobernuei laburpenak eta aholkuak eskaintzen dizkien adituen taldea.

1994

Nazio Batuen Konbentzio Esparrua Klima Aldaketari buruz // Atmosferaren beroketari eta klima-aldaketari aurre egite aldera hartu beharreko neurriei buruzko nazioarteko hitzarmena. Ia 200 Estatuk egin dute bat.

Zer ari da egiten?

Bi dira estrategiak eta bietan egin behar da lan aldi berean:

EGOKITZEA ezinbestean datorrenera: klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko prestatuz eta gaituz

ARINTZEA gas kutsagarrien isurketak murriztuz eta saihestuz

Arintzean, lehenbizi egin beharreko lana jatorrian bertan isurketak murriztea bada ere, beste aukera bat da munduko beste leku batzuetan gasak murrizten laguntzea, karbono-merkatuen bidez. Merkatu horiek martxan dira jada.

Argazkia: Haize-energia proiektua Indian. Honen bidez, isurketak borondatez konpentsa daitezke.

1997

Kyotoko Protokoloa // Neurri gogorragoak eta juridikoki lotesleak proposatzen ditu. Helburu nagusia: 2012a baino lehen berotegi-efektuko gasen isurketa gutxienez %5 murriztea 1990eko mailekiko. Ahalegin hori herrialde industrializatuek egin beharrekoa da, 1 Eranskina deritzonean bildutako herrialdeek.

2005

Kyoto indarrean sartzen da // Errusiak bat egin zuen eta herrialde garatuen isurketak %55era iritsi ziren. Horrek ekarri zuen Kyoto indarrean sartzea. Hala, hainbat mekanismo jarri ziren martxan; isurketa-eskubideen salerosketa, esaterako. Herrialde batzuek oraindik ez dute berretsi Kyotoko protokoloa; AEBek, adibidez, nahiz eta gas kutsatzaile gehien isurtzen duen herrialdeetako bat izan.

Karbono-merkatuak

- Legeak behartuta dauden herrialde eta enpresak
- Kyotoko Protokoloaren bidez erregulatuak

Merkatu adostuak (eskubideak erostea / saltzea)

Isurketa-eskubideen salerosketa (adib.: Isurketen Europako Salerosketa Sistema, EU ETS)

Garapen Garbiko Mekanismoak (MDL)

Elkarrekin ezartzea (IC)

-Legeak behartuta ez dauden partikularrak, erakunde publikoak edo pribatuak
- Borondatezkoa
- Kyoto Protokoloak arautu gabeak

Borondatezkoak (isurketen konpentsazioa)

Merkatu 'ofizialak' (adib.: Chicago Climate Exchange)

Merkatu Autorregulatuak (Isurketen borondatezko konpentsazioa)

Garapenerako lankidetzaren eginkizuna

Premiaz jardun behar da herrialde pobreenei klima-aldaketaren ondorioetara egokitzen laguntzeko. Horrela, eta teknologia garbien bidez garapena sustatuz baino ez da lortuko garapen bidean den mundu honetan herrialde horien ahultasuna murriztea.

Horrez gain, lankidetzak aintzat hartu behar ditu kliman sortuko diren aldaketak; izan ere, lanean diharduen sektore gehienak kaltetuta daude, hala nola nekazaritza, osasuna, uraren eskuragarritasuna... Adierazle batzuek erakusten dute jada klima-aldaketa orain arte eskuratutako lorpenen gain zuzenean eragiten ari dela.

Munduko Bankuaren arabera pobreziaren kontrako borrokara bideratutako Garapenerako Laguntza Ofizialaren %40 arriskuan dago klima-aldaketaren.

Lankidetzarako mehatxuak	Lankidetzarako aukerak
Gaur egungo migrazio-mugimenduen %60 klima-aldaketaren ondorio dira, baita jatorri naturaleko hondamendiak ere; lehorteak eta uholdeak, esaterako.	Beharrezkoa da kliman izan daitezkeen aldaketak lankidetza-plan eta -programetan jasotzea, etorkizuneko agertokiak aintzat hartuta.
Gero eta prezipitazio gutxiago izateak eta muturreko fenomeno klimatikoek zuzenean eragin dezakete elikadura-subiranotasunean eta komunitate askoren sustenguaren oinarrian.	Lankidetzak bere oinarrien artean jaso behar ditu ingurumen-iraunkortasuneko kontzeptuak eta teknologia berriak helarazteko eta prestakuntza sortzeko balio behar du.
Aurreikusten zailak izan daitezkeen beste ardatz batzuk sor daitezke –gaixotasunak hedatzea edo hondamendi naturalak, kasu– eta horien ondorioz lankidetza-ekimenak eten edo indargabetu egin daitezke.	Esku-hartzeetan eskuratutako lorpenak bermatu egin behar dira klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko ekimen zehatzak aplikatuz.
Ingurumen-baldintzetan edo habitatetan izan daitezkeen aldaketek eta biodibertsitatea galtzeak lankidetza alorreko esku-hartzeen iraunkortasun ekonomikoan eragin dezakete.	Bestelako finantziazio-aukerak azter daitezke borondatezko merkatuek eskaintzen duten aukeren esparruan.

Isurketak ordaintzeko borondatezko merkatua izugarri hazi da, GGKEek horretan parte hartzeko duten interesari esker eta isurketak neutralizatu nahi dituzten herritarrei esker.

Zer egin dezakezu zuk?

HIRITAR moduan:

- nire aztarna ekologikoa murriztu kontsumo arduratsuaren bidez, garraio publikoa erabilita energia aurreztuz...
- egoera globalari buruz eta eragin dezakedan esparruei buruz informazioa jaso, eta horietan parte hartu.
- ingurumenaren aldagaia politika publiko guztietan jasotzeko aldarrikatu.

ENPRESA moduan:

- produkzio garbiko prozesuak ezarri eta horixe bera exijitu nire hornitzaileei.
- energiaren aprobetxamendua hobetu.
- produktuak berrerabiltzea eta birziklatzea lagundu.

LANKIDETZAKO ERAGILE moduan:

- nire estrategiak eta ekintzak etorkizuneko klima-agertokietara egokitu nire esku-hartzeen eraginkortasuna hobetzeko.
- klima-aldaketaren kontrako borroka aukera bat bihurtu.

Eta **DENOK** daukagu modua, borondatez, saihestu ezin izan ditugun isurketen konpentsazioa emateko. Horretarako dago borondatezko merkatua.

Borondatezko merkatu horretan aurki ditzakegun proiektuak (basotzea, energia berriak, hondakinak eta ekosistemen babesa) txikiak izan ohi dira, hori dute bereizgarri, baina ingurumen eta gizarte aldetik eraginkortasun handikoak. Egitasmo horiek onura dakarte komunitatearentzat eta finantziazio aldetik aukera edo osagarri bat lankidetzan diharduen erakundearentzat.

Karbono bahiketa Muturreko Pobrezia duten Komunitateetan

Borondate hutsez beren isurketen konpentsazioa ematen duten pertsonen ekarpenarekin laborantzako eta abeltzaintzako 400 ha basotzen ari dira Sierra Gordan (Mexiko). Modu horretara, pobreziaren aurka egiten da lan eta garapen iraunkorra bultzatzen da eskala txikiko landaketak sortuz. Jabeek berek gobernatzen dituzte landaketa horiek.

Créditos de las fotos
Argazkien kredituak

Portada/Azala: UNICEF/HQ08-0321/Adam Dean.

Contraportada/Atzeko azala: UNHCR/ M. Maguire

Capítulo 2. kapitulua: 1. FAO; 3. UNHCR/ H. Caux; 2. vvvv; 3. vvv: 4/5/6. ALBOAN/ UNESCO; 7. Wikimedia Commons; 8. IFAD/ Anwar Hossain.

Capítulo 3. kapitulua: ECODES.

Capítulo 4. kapitulua: EKOPASS.

Capítulo 5. kapitulua: IFAD/ Giuseppe Bizzarri.

Las emisiones de gases de efecto invernadero asociadas a este folleto han sido compensadas mediante proyectos de reducción de emisiones a través de la iniciativa CeroCO_2.

Liburuxka honi dagozkion berotegi-efektuko gasen isurpenak, isurpen murrizpen proiektuen bidez konpentsatu izan dira CeroCO_2 ekimenaren bitartez.